

SUÁREZ-OROZCO, C. eta SUÁREZ-OROZCO (2003)

La infancia de la inmigración. Madril: Morata

Gaur egun, inmigrazioa munduko osoko herrialde guztiak barnebiltzen dituen prozesua da; eta, beraz, baita hezkuntza ere. Inmigrazioaren fenomenoak modu zehatz, sakon eta argi batez agertzen dizkigute egileek.

Irakurketa errazteko moduan egituratu dute liburua. Lehengo kapituluari inmigrazioaren gaia gaur egungo egoera aztertzen dute, irakurleak argazki orokor bat egin dezan.

Bigarrenengoan, inmigrazioaren alderdi antropologikoa, etnografikoa, historikoa, ekonomikoa eta kulturala aztertzen dute. Hau da, hainbat fenomeno eta ikuspegi aintzat hartzen dituzte kulturantzatasunaren gai ongi kartzeko. Era horretan, autoreek esaten dute gaur egungo inmigranteentzako egoera oso dualista dela; izan ere, inoiz baino aukera gehiago dituzte, esaterako, unibertsitatera joateko; baina baita ikasketa zikloa amaitu gabe uzteko eta marginazioaren bideari ekiteko. Gehienak motibatuta eta gogoz iristen dira euren herrialde berrira, baina aurre egin behar dituzten ozto-poak sarritan gaindiezinak bihurtzen dira. Hori ongi asko agertzen dute autoreek hirugarren kapituluari, non inmigrazioaren fenomenoaren alderdi psikosozialetik aztertzen duten, eta, etorkinek, zer-nolakako zailtasunak izaten dituzten egoera berrira egokitzeke. Horrekin batera, eta laugarren kapituluari, gizabanako bakoitzaren identitatearen fenomenoaren aztertzen dute, hau da, gizarte-sistema berriak zer ondorio dakartzan norberaren identitate etnikoan.

Bosgarren, eta azkeneko kapituluan, horretan guztiak eskolak zer-nolako funtzioa bete dezakeen garatzen da, elebitasuna, eskola-erreformak, gurasoen papera eta hezitzaileen egitekoa aztertuz. Azken batean, bai etorkinen bai bertakoen arteko akomodazioa eta etengabeko negoziazioa ezinbesteko tresnak direla defendatzen dute, egoera berriari aurre egin nahi bazaio bederen.

Egia esan, gai honetan oinarrizko ezagutzak eta ikuspegia eskuratu nahi duenarentzat liburu egokia da, hainbat eta hainbat alor jorratzen dituelako fenomeno berdinen inguruan, inmigrazioaren ikuskera globala eskuratu ahal izateko. Bukaeran, jakin-mina asetu nahi izanez gero, bibliografia zerrenda joria eta aberatsa eskaintzen digute egileek.

Axier Huegun

GIMENO SACRISTÁN, J. (2003)

El alumno como invención. Madril: Morata

Liburu honetan autoreak eskolatutako subjektuaren balorea indartu nahi du, berau baita, bere aburuz, heziketaren kalitatea ebaluatzeko, garatzeko eta berritzeko erreferentzia nagusia. Bere ideia nagusia da eskolaren zeregina pertsona autonomoak eta kritikoak sortzea baldin bada, horrek ikaslea oso aintzat hartzea ezinbesteko egiten duela, bere gaitasunak eta trebetasunak garatuz gizartea hobetu baitaiteke.

Horretarako guztirako irakurketa zorrotza eta zehatza egiten du *ikaslea* kontzeptuaren sorreraren inguruan. Horretarako ikuspegi soziologikoa, historikoa, psikologikoa eta pedagogikoa uztartzen ditu. Nolanahi ere, liburuaren azkeneko kapituluan guztiaren mamia aurkituko dugu, non egileak ikastearen plazera, formazio eta garapena nola uztar daitezkeen aztertzen duen. Horretarako irakasleek euren lana birplanteatu beharko dute, eta beraien zereginaren gaineko etengabeko gogoeta egin beharko lukete, hau da, zein apendizaiak baliagarriak diren eta horiek nola jorratu. Horretaz gain, instituzioek beraien indarra eta ahalegina gizarteko parte aktiboa izango den ikasle horrengan jarri beharko lituzkete.

Axier Huegun

ZABALZA, M.A. (2003)

Competencias docentes del profesorado universitario. Madril: Narcea

Liburuaren izenburuak berak argitzen digu ongi asko lan honen nondik norakoa. Egilearen irudikoz, Unibertsitateak goi mailako formazioa es-

kaintzen du, eta horrek baldintza instituzionalak eta gaitasun pertsonalak garatzea eskatzen du, bere funtzioa hobetze aldera. Bada, hori guztia hiru gai-multzotan egituratuta dator, oso argi:

1. Unibertsitatearen kurrikuluma.
2. Unibertsitate-irakaskuntza.
3. Unibertsitate-eskolen kalitatea.

Hiru multzoez irakurlearen gogoeta eta hausnarketa bideratzen dute. Lehengoan, Unibertsitatearen curriculum-ereduak aztertzen dira, praktika eta teoria; eta eskolak eta lan-merkatua eduki behar duten erlazioa azpimarratuz. Horrekin batera unibertsitateko irakaslearen profila argitzen du, baita ikasketan planen antolakuntza eta bere ebaluazioa egiteko proposamenak ere.

Bigarren zatia mamitsuagoa da, eta unibertsitateko irakaslearen zeregin hobetzeko bideak marrazten ditu, baita horiek zer-nolako funtzio betetzen dute eskolak emateko garaian. Horrela: eskolen planifikazioa nola antolatu argitzen da, informazioa nola transmititu, metodologia, ikasleekin nola erlazionatu eta komunikatu, tutoretzaren garrantzia, ebaluazioa nola egin, eta norberaren irakas-jardunari buruzko gogoeta nola gauzatu. Hori guztia aztertu ostean, hirugarren atalean hobekuntzarako proposamenak bideratzen ditu, eta puntuz-puntu, eta zehaztasun handiz aztertzen ditu.

Unibertsitaterako irakasleentzat zuzendutako liburua bada ere, bestelako irakasleentzat baliagarria izan daiteke; izan ere, norberaren gaitasunak eta trebetasunak zein diren, eta horien gaineko gogoeta egiteko bidea ematen digulako. Horrela, gelan zenbait gauza egiteko dugun moduz ikuspegi berria eta ezberdina eskura dezakegu, baita berrikuntzak ezarri ere. Gainera, azalpen osoan zehar gai bakoitzaren inguruko ikerketak eta horien emaitzak ematen ditu autoreak, eta horrek irakurketa errazten du.

Hortaz, liburu baliagarri da irakaslea den edonorentzat, eta noski, bere irakas-jarduera hobetu nahi duen ororentzat.

Axier Huegun

GUTIÉRREZ, A. eta ZURDO, D. (2003)

Comercio Electrónico y Privacidad en Internet. Madril: Creaciones Copyright

Dagoeneko Informazio Gizartea errealitatea da eta aurrean daukagun lana horren adibide garbia da. Liburu honen sarrerak ondo jasotzen duen bezala azken urte hauetan gobernu desberdinek Interneten erabilera zabal-

tzeko egin dituzten ahaleginek bere fruituak eman dituzte eta, egunak pasa ahala, *sarean konektatua* dagoen jendea modu esponenzialean handitzen doa. Hau dela-eta, gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dira eta garai batean nahitaez modu presentzialean egin behar zena gaur ordenadorearen aurrean egin dezakegu etxetik mugitu gabe (administrazioko betebeharrak, erosketak egin, egunkariak eta aldizkariak irakurri, zerbitzuak kontratatu... e.a.).

Erabilera masibo eta zerbitzu berrien eskaintzek bultzatu diete zenbait erakunderi Interneten inguruan lege zehatz bat sortzera. Espainian, lege hau 34/2002 Dekretu-Erreala da, eta Pribatutasuna Interneten eta Merkataritza Elektronikoko datza. Hau da, hain zuzen ere liburu honen oinarria. Eta horren helburu nagusia zera da: Interneten inguruan sortu den lege berria ezagutzera ematea zeren eta bakarrik modu honetan lortuko baitugu Informazio Gizartean dauden ondorengo kezka argitzea:

Zeintzuk dira Interneten eskaini daitezkeen zerbitzuak? Zer balditzeptan? Nortzuk eman ditzakete zerbitzu horiek?

Zer arau bete behar dute mundu birtualean ematen diren komunikazioek? Nolakoak izan behar dira mezuen betekizunak? Batez ere publizitate-postan.

Zer prozedura jarraitu behar da Interneten hitzarmenak edo kontratuak burutu ahal izateko?

Zer baliabide daukate erabiltzaileek eta kontsumitzaileek gehiegikeria saihesteko eta beraien eskubideak defendatzeko?

Nola defendatu daiteke intimitatea web orrian eta posta elektronikokoan?

Zer kontrol mota existitzen da Interneten bidez hitzartutako zerbitzuak behar den modura ematen direla ziurtatzeko?

Horrela, Atal desberdinetan legearen titulu, kapitulu eta artikuluko guztiak jaso eta lantzen dituzte egileek argibide eta adibide garbiak erabiliz. Modu honetan beti zaila izaten den lege-lexikoa ulerkorragoa bihurtzen dute.

Honetaz gain, egileen arabera legearen osagarria informatika munduren eskutik dator eta horregatik pribatutasuna hobetzeko hiru proposamen jasotzen dituzte eranskinetan: zifratzeko eta kodetzeko sistema desberdinak; pribatutasuna ziurtatzeko Internet aurkitu ditzakegun aukerak (Thawte eta FNMT); eta nahi ez den posta elektronikoa (SPAM) ez jasotzeko sistemak.

Honengatik guztiengatik, aurrean daukagun liburua Interneten ibiltzen den edozeinentzat egokia izan badaiteke ere, testuaren edukia eta egitura ondo aztertu ondoren esparru honetan zerbitzu komertzialak eskaintzen dituztenentzat dago bereziki zuzenduta. Horrela, «e-enpresa» deitutakoak erreferentziako liburua daukate hemen.

Arkaitz Lareki

MARTÍNEZ BONAFÉ, J. (2002)

Políticas del libro de texto escolar. Madril: Morata

Jaume Martínez Bonafé Valentziako Unibertsitateko DOE saileko irakasle eta Berriztapen Pedagogiko Mugimenduko partaidea da.

Gizarte erreproduzio sistema soziala produkzio sistemetatik banandu zenetik, testua erreproduzitu beharrekoaren irudikapen forma beharrezko bezala azaldu da. Hala ere, eskola erakunde gisa, testu forma berezia mantendu du, beste gizarte erreproduzio sistematan eman den bilakaeratik at mantenduz. Autorearen hitzetan, inmovilismo horretan errotzen da bere izaera kontraesankorra, bere indarra eta era berean bere zaharkitzapena ere.

Autoreak liburu honetan inmovilismo hori aztertzen du gaur egungo curriculumak zabaltzen duen kulturaren irudikapen zaharkitua ulertzeko. Kritika hau hezkuntzaren ikuspegi teknologikotik egiten zaio hain zuzen ere.

Berarentzako, eta bere lan hipotesiaren oinarria, testu liburuak botere eta jakintzaren arteko erlazioaren joko estrategikoaren zehaztapen ardatza da. Liburuaren izaera diskurtsiboa da gehien interesatzen zaion ikuspegia, eta honetan oinarritzen du lehen kapitulua.

Bigarren kapituluan testu liburuaren erabilera teknologia gisa azaltzen du. Testu liburua lan tresna bat da. Beraz instrumentu tekniko batek teoria, ikerketa eta ebaluaketa beharko ditu. Besteak beste teoria eta praktikaren erlazioa, ezagutzen forma testu moduan eta testu liburuaren teknologiak hezkuntzan duen eraginaz aritzen da, curriculumaren arrazionaltasun teknozientifikoari kritika eginez.

Irakaslegoaren autonomia eta material curricularraren erabilerarekin duen erlazioa aztertzen dira hirugarren kapituluan. Martínez Bonafé testu liburuaren erabilerak irakasleen balio intelektual, kultural eta profesionalean duen eragin ezezkorrak mintzatzen da.

Apple-en «testu liburuaren politika ekonomikoan» oinarrituz testu liburuaren edizio politika eta politika curricularretan oinarritzen da laugarren kapituluan. Bertan gaur egungo enpresa mediatikoen globalizazioak hezkuntzan duen eragina aztertzen da. Alde batetik, beraien mekanismoek kontrola ezartzen dute eta bestetik, izaera ekonomizistaz kutsatzen ari dira definizioa curricularreko irizpide zein zehaztapen maila ezberdinak.

Bukatzeko, azken kapituluan testu liburuari alternatibak eta aukerak eskaintzen dizkio. Ezinbesteko lehen baldintza curriculumaren aldaketa ematea da. Bigarrena Freineten pedagogian oinarritua egongo da eta azkenik teknologi informatikoen prozesu alternatiboetan izan dezaketen aukerak mintzatzen da.

Autoreak dion moduan liburu honetan ez dira errudunak azaltzen, ez eta aldeko edo kontrako jarrerarik ere, azken batean gogoeta profesional eta eztabaidari bidea irekitzen dion testua da: liburuen aldeko liburua da.

Eider Ganboa

MARUJO, H.A., NETO, L.M. eta PERLOIRO, M.^ºF. (2003)

Pedagogía del Optimismo. Madrid: Narcea

Ezbeharrek markatutako garai batean bizi gara: porrotak eta pesimismo izaten dira askotan gure inguruan agertu ohi direnak, eta behin baino gehiagotan istoriorik deprimigarrienak izaten dira gure diskurtsoen oinarri nagusietako bat suposatzen dutenak. Arraroa izaten da bizitzaren alde positiboak azpimarratzea; horiei ez zaie kasu handirik egiten, horiek ez baitute saltzen. Badirudi ontasunak ez duela entzulego handirik bereganatzen, badirudi jendeak ez duela disfrutatzen ontasun horren garrantzia azpimarratzen, errazagoa izaten da ezbeharren profeta bihurtzea.

Hezkuntza arloan ere askotan frustraturik sentitzen gara ez dugulako aldaketarako aukera handirik ikusten, eta horrek amore ematera eramaten gaitu. Baina ze zentzu dauka hezitzailea izateak bizitzaz disfrutatzen ez badakigu, bizitzaren alde positiboak azpimarratzen ez baditugu?

Liburu honetan zehar zoriontasunaren bilaketaren aldeko aldarrikapena agertzen da, eta beste batzuei bizitzeko gogoia eta zoriontasuna transmititzeko beharra azpimarratzen da, baina horretarako, lehenik, guk geuk jakin beharko dugu zoriontsuak izaten.

Liburuan hainbat pauta eskaintzen dira eskola giroa hobetu ahal izateko, kasu askotan eskola sufrimendurako leku bat bezala agertzen dela antzematen baita. Beraz, sufrimenduarekin lotuta agertzen bada, oso modu zailean lortuko dugu zoriontasunaren balorea transmititzea. Horren ondorioz, sufrimendua eragin dezaketen egoera horiek baztertu behar dira, eta eskolan agertu ohi diren arazo horien guztien aurrean, beti jarrera positiboa erakutsi beharko dugu, modu horretan bakarrik lortuko baita desiratutako aldaketa.

Egileek optimismoaren inguruan agertzen diren sentimendu desberdinen garrantzia azpimarratzen dute, hala nola autoestima eta autokontrola. Optimismoan oinarritutako jarrera batek oso modu esanguratsuan hobetuko du pertsonak eduki dezaketen autoestima bere ere, eta azkenengo honek asko lagunduko die bizitzan agertzen diren erronkei aurre egiteko garaian.

Horretaz gain, eta ikuspegi praktiko batetik, horrelako sentimenduek ikasgela giroa hobetzen ere lagunduko dute.

Beraz, oso liburu interesgarri eta atsegin baten aurrean gaude, oso erraz irakurtzen da eta gainera, guregan eduki dezakeen eragin positiboa ere azpimarratu beharra dago, batez ere eguneroko bizitzaren arazoek agobiatzen gaituztenean.

Igor Camino Ortiz de Barrón

REDONDO GOICOECEA, Alicia (2003)

Mujeres novelistas. Jóvenes narradoras de los noventa. Madrid: Narcea

Honako liburuak Espainian 1960tik aurrera jaio eta azken hamarkada eta erdian narratibagintzan zer esanik eman duten emakumeei buruzko azterketa monografikoen sorta eskaintzen dio irakurleari, 11 idazle guztira. Horien artean gehientsuenak 60ko hamarkadan jaioak dira, nahiz artean gazteago pare bat ere baden (Espido Freire arabarra, 1974; guretzako horren ezaguna ez den Care Santos, 1970). Horrez gain, beste artikulu bi ere badira, emakumeek idatzitako zientzia fikzioari buruz bata, eta, bereziki interesgarria bigarrena, *birsortzeko gaitasunari* buruz emakume idazleen begien ikuspegitik, gaitasun hori oso zentzu zabalean hartuta.

Eranskin gisa, liburuak Estatuko lau hizkuntza ofizialetan eta Hegoamerikan idatzitakoan aipamen bibliografikoa jasotzen du zenbait atal laburretan.

Koordinazio lanetan aritu den Alicia Redondo Goicoechea Espainiako Literaturako irakasle titularra da Madrileko Unibertsitate Complutensean.

BIDAIARAKO GONBITEA...

Munduko herrialde ezkuturen bateko zirrikietan barna lagunduko gindukeen gida gisa planteatuta, liburuak irakurketarako gonbitea eskaintzen digu, horra bere meriturik aipagarriena. Bilduma orok zenbait bazterrean uztea eskatzen du nahitaez; kasu honetan, ez dakit badenik falta ote den hautatuen artean, baina begibistakoa da daudenak badirena zerbait Espainiako azken hamarkada eta erdiko letretan: Almudena Grandes, Juana Salaber, Belén Gopegui, Lucía Etxebarria, Luisa Castro, Cuca Canals...

Bildumetan ohi den gisara, sendotasun eta seriotasun maila desberdineko lanak biltzen ditu honek ere, baina iruditzen zaigu koordinatzaileak asmatu egin duela egileei asmo didaktiko berbera transmititzerakoan, irakurleari gida irakurteraz eta gonbidagarria eskaintzea; horrek batasun itxura

ematen dio osotasunari. Izanik ere, ia guztiek hizpide duten idazlearen obra irizpide kronologikoaren arabera aztertzen dute. Tonua ere ildo beretik ibiliko da lan gehienetan: dibulgazio maila nagusitzen da, kaleko irakurleari begira; gehiago jotzen dute idazleen produkzioaren ezaugarri nagusiak seinatatzera, aspektu jakin baten, edo obraren osotasunaren *corpusean* (nola ba, zaharrena ere 40 urteko muga gorabehera baitabil!) sakontzera baino. Metaforen bidez esango genuke, liburuaren asmoa dela hondartzara iristen zaizkigun olatu freskagarri eta kilikagarriekin jolas egitea, eta ez horien atzeko indar ezkutuko ur handietan murgiltzea.

Cuca Canals-en esperimentaziorako gogoia, Lucía Etxebarriaren inguruan sortu den *glamourez* ziprintzindutako irudi mediatikoa (berak apur bat horretan lagundu duelarik edo ez, hori beste kontu bat da), Belén Gopeguiren bestelako bidea (oso agerraldi publiko gutxitan ikusi ahal izan da, badirudi nahiago duela idazten duenaren ondoriozko sona)... Zeinek bere mundua, baina emakumezko protagonisten mundua nagusitzen da aztertutako narratibagintzetan. Askotan eztabaidatu da zertan bereizten ote den *emakumezkoen literatura*, halakorik baldin bada behinik behin; hara, bi eztabaida baten prezioan, eta biak amairik gabeak dirudite. Korapiloa askatzen ez dugu lagunduko guk, baina bai nabarmenduko emakume idazleen hautu gurariazko edo/eta inkontzientea. Liburuak proposatzen digun bidaiarako gonbitea onartzen duenak betiko (betiereko?) auzi funtsezkoak eta mundu moderno zoro honenak emakumeen begietatik ikusi, sentitu, atzeman ahal izango du ikuspegi bikoitz baten moldeetan: egilearenak eta egileak bere egin duena.

... ETA BIDAIA LUZATZEKO GOGO ETSIA

Baina, merituak aipatuta, ifrentzua ere kontuan hartzekoa da. Bada, gure ustez, gabezia nabarmen bat liburuan; izan ere, hizkuntza *periferikoe-tan* (ironia puntu batekin ari gara) adierazitako literaturek oso tratu *periferikoa* jaso dute (eta orain etsipena eta amorrazioaren arteko zerbaiten ukituarekin diogu). Galiziera, katalana eta euskarazko emakume idazleen presentzia hutsaren hurrena izan da, nahiz eta bakoitzari atal bana eskaintzen zaion itxuraz. Alabaina, atal horiek, egiatan, bilduma bibliografiko baino ez dira; Mari Jose Olaziregi arduratzen da euskarazkoaz, eta bere beste hausnarketa eta begi kritikoaren dotorezia ezagututa, ezin ukatu atal horretara gogoz jo ondoren sentitu izan dugun dezepzioa: Jasone Osoro, Itxaro Borda, Ana Urkiza eta beste bosten aipamen bibliografikoa, baina azterlanik ez, ez monografikoki, ezta era kolektiboan ere. Jakin, badakigu Galizian ere azken urteotan emakume idazle gazte andana sortu dela, eta benetan interesgarria gainera, neurri batean Galiziako egungo literaturari astindutxo eman diotenak; gustura askorik hartuko genuke haien berri zehatzagorik. Eta guk haien berri jakin nahiko genukeen bezala, aberasgarria litzateke era berean euskarazko produkzioaren berri kanporatzea. Baliteke

hauxe ez izatea horretarako lekua, hala asmoa neurritz gain hasiko litzatekeelakoan... hala balitz, baina, soberan ikusiko genituzke atal hauexek, hobe leudeke *addenda* edo eranskin maila eman baliete.

Onenarekin geldituko gara, bidaiari ekingo diogu. Nahi genuke bidean jarraitzea, bidaiia luzatzea... edo bestelan, etxerakoan, aberastuta etxeratuta, postontzian hurrengorako txartela aurkitzea.

Mario Unamuno Plazaola

POZO, J.I. (2003)

Adquisición de conocimiento. Madril: Morata

Bere aurreko lanean, «Humana mente. El mundo, la conciencia y la carne» (Giza gogamena. Mundua, kontzientzia eta haragia), Pozok planteatzen du ohizko psikologia kognitiboak, bere suposamenduak informazio lanketara mugatzean, subjektua —epistemikoa eta esperimental— bere ezagutzetatik alboratu eta ia giza zentzurik eta esangurarik gabeko ekintza konputazional batera mugatzen duela. Subjektuaren gogamena munduan, kontzientzian eta haragian sartuta dago, hiru maila hauek haien artean sakonki lotuta daudelarik. Giza gogamena, bizi den munduan ikertu behar da, mundu analogikoa, hiru dimentsiokoa, gizaki, adierazle eta desirakin. Soilik gorputzak ematen dizkigun irudikapen haragiztatuen bidez gure gogamena bizi den mundu analogikoa ezagutu dezakegu. Baina, gorputzak eskaintzen dizkigun munduari buruzko irudikapenei zentzua emateko beraien kontzientzia hartu behar da. Informazioak, orain gorputzarekiko eta munduarekiko kontzientzia bateratuak, kultur irudikapen sistemen bitartekaritza eskatzen du; gizaki moduan berreraikitzen gaituzten bitartean gure horizonte kognitiboa zabaltzen duten ezagutza objektuak.

Pozok, lan berri honetan, *ezagutza* eraiki eta jasotzen dugun prozeduretan jartzen du bere gogoeta. Diziplina anitzen konparaketa erabiliz, gure irudikapen inplizituera heltzea eta errepresentazio sinbolikoaren sistema kulturalen bidez berreraikitzea uzten digun gizakiena ez beste inorena den gaitasuna ezagutza dela proposatzen digu. Bizi dugun ezagutza-gizartea askorentzat informazio gizartea baino ez da, zentzurik gabeko informazioa irudikapen sinbolikoaren kultur forma anitzetara heltzen ez den bitartean, zenbakizkoetara, artistikoetara, zientifikoetara, grafikoetara, etab.ra. *Alfabetatze* eskaera, ezagutza irudikatzeko kultur sistemen unibertsalizazioa, iraunkorra da mendebaldeko gaurko hezkuntza sistemetan. Ezagutzaren demokratizazioa dakar, baina beste gizarte ondareekin gertatzen den bezala, banaketa ez da zuzena, horregatik ezagutzeko eskubideak eremu espezi-

fikoetan ezagutza berriak ikasteko *kit* edo erreminta kognitiboaz jabetzeko eskubidea barneratu beharko luke.

Kultur sinbolikoaz jabetzeak ezagutza bereganatzeko era berriak behar ditu, *ikastearen kultura* ikastea ahalbidetzen dutenak, bere biziraupen kognitibo kita eta guzti. Ezagutzaren gizartearen giza aldaketen bizkortzeak bilakaeraren ondoriozko gure seriezko ekipamendu kognitiboaren ikas-gailuei kontra egin diezaieketen modu berriak behar ditu. Ikastea gutxienezko konplexutasuna duten izaki bizidunengan garatutako *funtzio biologikoa* da, ingurune aldaketa garrantzizkoei erantzuteko organismoan aldaketak dakartzana, ingurune kiko etorkizuneko elkarreraginetarako barne aldaketa horiek gordez, gero eta konplexuagoa den oroimen edo errepresentazio sistema desberdinak edukitzea eskatzen duena (Pozo, 2001). Giza *giroa* estimuluen konfigurazio fisikoaren eta organismo berak ezarritako antolakuntza kognitiboaren araberakoa da. Organismoek eraikitako «kabi kognitiboak» lirateke (Tooby eta de Vore, 1987). Inguruneak eta organismoak elkarri eraikitzen diete. Giza giroak, *kulturalak*, beste espeziekoekin alderatuz, oso aldakorak eta konplexuak dira eta ikasteko era berriak eskatzen dituzte, hau da, kulturak sortutako *ingurune eskaera* berrietara egokitzeko aldatzea. Inguruneak eta organismoak elkarri eraikitzea kultur eskakizun berrien hasiera eta emaitza da aldi berean, eta ezagutzara heltzeko oinarritzko bidea.

Gure ezagutzeko ahalmena, *espezie kognitibo* legez definitzen gaituena, ikasten dugun modu espezifikoaren emaitza da, modu hauek guk geure buruak eta gure buruen bidez mundua ezagutzeko ahalmenaren emaitzak direlarik. Egile honen iritziz, *ezagutzaz jabetzea* da, gure sistema kognitiboaren ezaugarri bereizgarriena eta ikasten duten beste organismoetatik eta beste sistema kognitibo artifizialeetatik gehien bereizten gaituena. Hizkuntza eta pentsamendu kontzientea, mintzaira sinbolikoren bidezko komunikazioa eta norberaren pentsamendu edo irudikapenetara iriste kontzientea jabetutako ezagutzak antzemateko eta pilatzeko daukagun gaitasunarekin estuki lotuta daude. Irtenbide egokituak ezagutza modu pilatzea gizakiok soilik lortzen dugu, belaunaldi belaunaldi transmitituz. Ikasteko eta irudikatze daukagun sistemek ikasten duten beste organismo eta sistemetatik bereizten gaituzte eta, gainera, irtenbide horiek esplizituak egin, berritu eta konpartitzen ditugu.

Ezagutza jasotzeko prozesu psikologikoak aztertzea gizakiaren bereiztasun kognitiboa aztertzea da. *Gizatarkuntza* funtzio kognitibo berrien eraikitzearekin hasten den prozesu luzea da, zehazki norberaren irudikapen kognitiboak esplizituki irudikatze edo ezagutzearekin. Kultur eboluzio iraunkorreko irudikapen eta ezagutza sistema berrietara bitartekaritza kulturalaren bidez sartzearekin jarraitzen du, hauek ezagutza era eta funtzio kognitibo berriak daramatzatelarik. Homo sapiens-ak eboluzioak eman digun seriezko funtzionamendu kognitiboa gainditu du, homo discens-era

heltzeko. Azken honen ezagutzara heltzea materiaren antolakuntzaren ebolutiotik eta ezagutzaren kudeaketarako sistema kulturalen garapenetik dator, biak gero eta konplexuagoak eta beste espezie eta organismoekin konpartitutako oinarrizko ikaste eratan errotuak.

Ikastea *funtzio biologiko* garatua da, eta bertan beste espezierekin konpartitzen ditugun ikaskuntza implizitu, asoziatibo eta izaera inkontzienteko sistemen eta bereziki gizatiarra den ikaskuntza esplizituko sistemaren artean desberdinu dezakegu. Giza ikasteari, jokabide, informazio, irudikapen eta ezagutza analisi maila desberdinetatik heldu diezaiokegu, *sistemen integrazio hierarkikoaren* logikaren arabera konplexutasun gorakorra dakartenak. Integrazio honek aurreko mailak hartu eta antolamendu hierarkiko berriari berdeskribatzen ditu. Azken maila biak interesatzen zaizkigu, irudikapen eta ezagutzarena, haietan homo discens berezitasun kognitiboa aurkitzen dugulako. Espezie kognitibo legez identifikatzen gaituzten prozesuak dira, ezagutzaz jabetzeari erabat lotuak, ezagutza gizartera heltzeko oinarrizkoak eta, era berean, ezagutza kudeatzeko gizarte moduetako emaitza. Kultura ikasteko eta kulturari parte hartzeko bide bakarra berarekin bat datorren ikaste kultura jasotzea da, kultura edo ezagutza eta ikastea elkarri eraikitzen dieten bi prozesu edo sistemak direlako. Ezagutza jarduera beti da, nolabait, autorretratua, baina aldi berean gure ezagutza implizituzko sistemek, historia naturalaren ondorioz, ezartzen dizkigun murrizketak gainditu edo berreraikitze bide bakarra. Murrizketa horietatik haratago beste mundu mentala posiblea da, baina bakarrik ezagutzaren bidez, gure izaera kognitibo primarioen berreraikitze kultural legez ulertua, zorionez edo zorritarrez erabat inoiz baztertzeko ez dugun izaera.

Elena Herran Izagirre

FREYD, J. (2003)

Abusos sexuales en la infancia. La lógica del olvido. Madril: Morata

Liburu honetan, Jennifer Freyd-ek haurtzaroan jasandako sexu abusuek eragiten dituzten oroimenak ahaztearen arrazoiak aztertzen ditu, modu berean oroimen horiek kontzientziara bueltatzeko eduki ditzaketen aukerak ere aipatzen dituelarik. Ahaztearen arrazoiak eta moduak azaltzeko, Freyd-ek fenomeno, motibazio eta ahaztearen edo inkonszientziaren mekanismoen artean agertzen den konfusioa argitu nahi du.

Obra honen bidez, honako galdera hauei erantzuna ematen saiatuko da: errepresioa eta inkonszientzia berdinak al dira? Ahaztea eta amnesia traumatikoa eta disoziazioa berdinak al dira?

Obraren egilea pertsonak abusua ahaztera bultzatzen dituzten arrazoiak ezagutzen saiatzen da; zertarako ahaztu?

Freyd-ek dioenez, gakoa traizioak sortzen duen traumaren teoriar aurkitzen da: teoria honetan erlazio sozialek ahazten diren trauma horietan jotzen duten papera aztertzen du: konfidantzazko zaintzaile batek garatutako abusuak egoera ezinhobea suposatuko du abusu hau jasaten duen biktimak jasandako abusuaren informazioa blokeatzera jo dezan, erasotzailearekin elkartzea bere superbibentzia bermatzeko modu bakarra suposatuko baitu. Horretaz gain, umeak bere ingurukoek bere sufrimendua ulertuko ez dutela sinisten badu, adierazi den moduan, superbibentziarako modu bakarra «sexu abusuarekiko akomodatze edo egokitze sindromea» izango da. Abusua aurrera eramaten duenak, gainera, derrigorrezko isiltasuna eragin dezake hainbat mehatxuren bitartez.

Ikuspegi kognitibo eta neurologikoaren ikuspuntutik, Jennifer Freyd-ek haurtzaroan agertutako sexu abusuak ahazteko eta gogoratzeko prozesuetan inplikaturako mekanismo kognitiboak aztertuko ditu. Erraz uler daitekeenez, informazioaren ahaztea edo gogoratzea ager dadin, gertaerak, modu batean edo bestean, nerbio sisteman txertaturik geratu behar izan du. Beraz, egileak psikologia kognitibo eta neuropsikologiaren deskubrimenduak oinarritat hartzen ditu haurtzaroan jasandako sexu abusuak ahazteko edo gogoratzeko moduak azaldu ahal izateko.

Modu berean, egileak haurtzaroan agertutako sexu abusuaren ikerketa lanak planteatzen dituen muga etikoak bereziki azpimarratzen ditu eta nahiz eta fenomeno hori errealitatean gertatzen den moduan ezin izan aztertu, arlo honetan garatutako ikerketa lanaren balio zientifikoa defendatzen du. Datu gardentasunaren aldeko apostua egiten du, eta hori dela eta, inplikaturiko pertsonen izen-abizen osoak aipatzen ditu, beste lankide batzuek egindako lanetatik adibideren bat ateratzen duen ezik. Gaur egun Oregon-eko Unibertsitatean garatzen ari diren ikerketen berri ematen du.

Jennifer Freyd haurtzaroan sexu abusuak jasan dituzten pertsonak psikoterapiaren laguntza jasotzearen alde agertzen da, nahiz eta bide zaila eta gogorra dela onartu. Honekin lotuta, bere profesionaltasuna alde batera uzten duten eta biktimen sufrimendua eta oroimen faltsuen agerpena eragiten dituzten psikologo eta psikiatrak modu gogorrean salatzen ditu.

Liburuan zehar adingabeek sufritzen dituzten sexu abusuaren kontrako kritika tinko eta gogorra antzeman daiteke; obra honek, gainera, aspektu berezi bat dauka: bere egileak haurtzaroan sexu abusuak jasan zituen. Beraz, bizi izandako esperientzia horren eragina liburu osoan zehar nabarituko da, egileak biktimekiko empatia horretaz kutsatuko gaituelarik.

Rosa Letamendia Pérez de San Román

SANTOS GUERRA, M.A. (2003)

Una flecha en la diana. La evaluación como aprendizaje. Madrid: Narcea

Hezkuntza ebaluazioaren inguruan asko idatzi duen Santos Guerra Didaktikako Katedradunak berriz ere beste liburu bat aurkeztu digu. Oraingo honetan, ohi duen moduan, izenburu iradokitzailea proposatu du: «*Una flecha en la diana...*». Horrelako izenburuekin ohituak gaude bere bibliografian: «*Hacer visible lo cotidiano...*», «*Los tres vértices del triángulo...*», «*Patología general de la evaluación educativa*», «*Diario de un evaluador obsesionado*», e.a.

Halere liburu hau, aurretik aldizkari desberdinetan argitaratutako artikuluez osatua dago. Beraz, egileak hitzaurrean dioen bezala, bere asmoa, sakabanatuak, hizkuntza desberdinetan argitaratuak eta askotan lortzea oso zailak diren artikuluen bilduma egitea izan da.

Dena den artikuluen bilduma koherentea izan da eta ondorioz liburuak badu zentzu logikoa unitate gisa. Nahiz eta zenbaitetan hainbat gauza errepikatuak azaldu, liburuaren kapitulu bakoitza testu banandu gisa sortu baitzen.

Liburuak sarrera eta bi atal nagusi ditu. Sarreran, ebaluazioaren oinarri orokorrak aurkeztu ditu, ebaluazioa ikasteko prozedura gisa planteatu.

Lehenengo atalean ikastetxeen ebaluazioari buruz hitz egiten da. Bertan hiru kapitulu bereizten dira. Lehenengoan, ikastetxeen ebaluazioaren inguruan jarduten da. Hurrengoan, ikastetxeetan ebaluazioak sortzen duen kulturaz mintzatzen da. Eta, azkenik, ikastetxeen ebaluazioaren ebaluazioari buruz hitz egiten du, hau da, metaebaluazioari buruz.

Bigarren ataletan, irakasleen ebaluazioari eta ebaluazio prozesuen bertan, irakasle hauek egin ditzaketen ikaskuntzei buruz jarduten da. Atal honetan lau kapitulu bereiztu ditu. Lehenengoan hezkuntza sistemaren ebaluazioaz eta irakaslearen ikaskuntzaren inguruan zenbait ideia planteatu ditu. Bigarrenengoan, irakasleen prestakuntza programen ebaluazioa jorratzen du. Hirugarrenengoan Hezkuntza Erreformen ebaluazioaren inguruan bere azalpenak plazaratzen ditu. Eta bukatzeko, bere ebaluazioaren ideiak labur bilduz, berriz ere izenburu iradokitzaile batekin bukatzen du: «*Esaidazu nola ebaluatzen duzun eta esango dizut zein motako profesionala (eta zein motako pertsona) zaren*».

J.F. Lukas Mujika

CREACIONES COPYRIGHT, S.L. (2003)

Ley de Calidad de la Educación. Madril: Creaciones Copyright, S.L.

Egungo hezkuntza-lege hau eta gauzaterakoan dituen ondorioak egoki ulertzea da liburu honek duen xederik nagusia. Bi zati ongi bereiztuta dauzka eta bigarrenak ez du iruzkin berezirik merezi, lege zehatzak baitira; hain zuzen: «Ley Orgánica 10/2002 de la Calidad de la Educación (LOCE)», «Real Decreto 827/2003, Calendario de Aplicación de la LOCE» eta azkenik «Ley Orgánica 5/2002 de las Cualificaciones y la Formación Profesional» deiturikoak.

Lehenengo zatia da, beraz, interesgarriena; hemen egungo Hezkuntza Sistema nola dagoen antolatuta egoki ulertzeko eskema interesgarriak aurkituko ditugu, DBHn zein Batxilergoan zeintzuk ibilbide jarrai daitezkeen, egungo titulazioen eskaintza Lanbide Hezkuntzan zein Unibertsitatean, «LOCE» legearen aplikatzeko egutegia... baita estatistika-taula batzuk hezkuntzaren inguruan (ikastetxe kopurua, ikasleriarena, irakasleriarena zein ibilbide ari den ematen... beti estatu mailan.

Zati labur honi bukaera ipintzen dio interesgarria den azpiataltxo batetik: estatu mailan egun dagoen hezkuntza sistemaren inguruko ohiko galde-erantzunak, gurasoek (eta zenbait irakaslek) izaten dituenak; hau dena era txukun eta argigarrian, bi kolore erabiliz galderak eta erantzunak ongi bereizteko.

Azken ezaugarri honi lotuta, azpimarratzekoa da liburu honen ardura-dunek izan duten arreta txukuntasuna, argigarritasuna eta beste ezaugarri formalak (letra mota, tarteak...) zaintzen. Eta honetan uste dut nabarmendu beharrekoak direla azal gogorak erabiltzea (liburuari sendotasuna eskaintzen) eta garai bateko liburuekin maizago ikusten zen orriak bereizteko xingola, irakurtzen non egon garen seinalatzen duena.

Bukatzeko esan eranskin batzuk ere badituela informazio orokorrarekin: autonomi erkidegoak, hezkuntza eta ikerkuntzaren inguruko zenbait web interesgarri...

Edozein modutan ere, liburuak ez du besterik eskaintzen: ikuspegi ofiziala ezagutzea beharrezkoa da eta era txukunean egiten du hori; baina oker dabilta besterik eskatu nahi diona, ez baitu «LOCE»ren irakurketa kritikorik egiten, ez hutsuneak agerian jartzen, halako erkidegoko egoera berezia azaltzen... eta finean, gure testuinguru zehaztasunak inork ezin ditu hemen bilatu.

K. Burgoa

CEBRIÁN, M. (2003)

Enseñanza Virtual para la Innovación Universitaria. Madril: Narcea

Honako hau «universitaria» deituriko bilduman gehitzeko beste titulu bat da (*La enseñanza universitaria. El escenario y sus protagonistas / Jóvenes, Universidad y compromiso social. Una experiencia de inserción comunitaria / Evaluar en la Universidad. Problemas y nuevos enfoques / Competencias docentes del profesorado universitario. Calidad y desarrollo profesional*) eta hasierako helburuei jarraitzen dizkio, irakasleei zuzenduta dauden hezkuntzarekin erlazionaturiko unibertsitate mailako arazo praktikoak planteatuz.

Liburuak agerian jartzen du unibertsitatearen izaera: erakunde aktiboa etengabe aldatzen doan gizartearekin harremandurik dagoena. Eta oraingo honetan, teknologia berriek eskatzen duten aldaketen harira egokiera prozesua abian dute unibertsitateek. Ildo honetatik liburuak erreferentziak markatzen ditu irakasleek teknologia berriak (bereziki Internet) erabil ditzaten.

Beste autore batzuk parte hartzen badute ere, Manuel Cebrián de la Serna da liburuaren gidari nagusia, berau Malagako Unibertsitateko irakasle (Hezkuntz-Teknologian hain zuzen) eta berak hartu du parte atal mamitsuetan, hala nola, sarrera gisa uler daitekeen «innovar con tecnologías aplicadas a la docencia universitaria» izenekoa zein teknologia hauen alde pedagogikoak, Interneten erabilera irakasleen partetik, birtual ikastaro baten osagaiak eta irakasgai bat web-en kokatzeko ereduen diseinua, arlo honetan irakasleek behar duten formakuntza... Beste autore batzuek (Andrea Góngora, Sonia Lara, José Alfonso Accino, Francisco López Hijano) gainontzeko atalak jorratzen dituzte, hurrenez hurren, Web dokumentuen diseinua, Interneten bidezko ebaluazio hezgarria, Heziketa birtualaren ingurune integratuak eta eranskinean, Software eta irakaskuntzarako baliabideak.

Ezinbestean, teknologia berriak geureak ditugu eta halako irakasle batek eduki ditzakeen arazo zehatzak konpontzeko beste libururen baten beharra izango badu ere, honako honek abiapuntu egokia eskaintzen du ohiko arazoei irtenbidea emateko eta gonbidapen polita ere bada itsas zabal honetan nabegatzeko: Interneteko erabilerak direla, alde pedagogikoa direla...

Halere, ezagutza eremu zabal bati zuzendua denez liburu hau, neronek bereziki azpimarratuko nituzke ikastaro birtualaren elementu osagaiak eta irakasgai baten diseinuari zuzendutako lerroak, web dokumentu baten osagaiak eta hauen diseinua eta, hasiera batean behintzat, oso irristakorra irudituko daitekeen ebaluazio hezgarria arazoa, ezagutza eremu ezberdinetan oso konponbide ezberdinak izan baititzake.

Edozelan ere eta jakinda, printzipioz, unibertsitateko irakasleei zuzendua dela liburua, oso interesgarria dela esan daiteke, nahiz eta norberak teknologia berrietan jorratu nahi duena gauzatzeko laguntza gehiago (aditu edota lagun baten partetik izan zein liburu batzuetatik izan) beharko duela jakitun egon.

Jose M.^a Sagasti

COLEMAN, J.C. eta HENDRY, L.B. (2003)

Psicología de la adolescencia. Madril: Morata

Agian baliteke adituren bat harritzea liburu honen erreseina hemen ikusteaz, lehenengo argitarapena 1985koa baita eta honako hau, dagoeneko, laugarrena; lehenengo argitarapenetik honantz era askotako aldaketak eman izan dira (maila kulturalen, politikoan, lan munduan, gizarte mailan oro har) baina lasai egon daiteke aditua zein estreinako z liburu honekin topo egiten duena ere: zuzenduta eta gaurkotuta agertzen baitzaigu Morata argitaletxeak eskuetan jartzen digun hau.

Nerabezaroa berez, aldaketa garaia da eta hasiera hasieratik agerian jartzen dute egileek ezaugarri hau baita azpimarratu haustura baino garapen ebolutiboa dela eta horretan testuinguruak, gizartearena bereziki, zein garrantzizkoa den eta giza garapena ikertzerakoan diziplinartekotasunetik begiratu behar zaiola ere. Hauexek, besteak beste, lehenengo atala osatzen dutenak, bigarrenean garapen fisikoari arreta zuzentzeko; hirugarrenean gazte hauen pentsaeran murgiltzen gara, «nia» eta identitatearen kontzeptuak jorratzeko hurrengo atalean. Geroago familiaren inguruan dihardute, mamitsua bezain interesgarria den bosgarrenean.

Sexualitatea eta osasuna gaiak dira seigarren eta zazpigarren atalak osatzen dutenak eta hurrengoan lagunartekotasuna jorratzen da. Lana, langabezia eta aisiarekin osatzen da bederatzigarrena eta hurrengo atalean gizartearen kontrako jokabideez dihardute. Hamaikagarrenean politika, altruismoa eta gizarte ekintzak jorratzen dituzte, azken atalean estresari erreparatzeko. Ikaragarri luze den bibliografiarekin eta egileen aurkibidea zein interesgarri eta erabilgarriagoa den gaiena bukatzen dute liburu mamitsu hau.

Atal ezberdinen errebasoak ikuspegi osatua jartzen du agerian eta azpimarratzekoa da egileek, atal bakoitzaren bukaeran, planteatzen dituzten (orri, orri ta erdiko) «implicaciones para la práctica» izenekoak, funtsean laburpen mamitsua, baita atalaren osagarri gisa eskaintzen duten iruzkinekin aberastutako bibliografia ere.

Morata argialetxeak ohikoa duen estetika eta txukuntasunari leiala den liburu mamitsu hau (240 orrialde gehi bibliografia eta beste, ia ia 300 orrialdetakoa) oso gomendagarria da —nerabearoa interesgune nagusia— psikologia zein pedagogian aritzen direnentzat (aditu, irakasle, ikasle) baita gutxieneko prestakuntza duten interesaturiko gurasoentzat ere.

J.M.^a Mues

GARCÍA-MINA FREIRE, A. (2003)

Desarrollo del género en la feminidad y la masculinidad. Madril: Narcea

Hasera batean gaia bera ez dela larregi interesgarria iruditu litzaioke askori, baina sarrerako lerroak irakurtzea nahikoa da ahanzturan izaten ditugun gai batzuk, liburuaren izenburuak aipatzen duena kasu, zer-nolako estereotipo eta aurreiritzi pean erabili ohi ditugun.

Sexu kategoria desmitifikatu beharra sentitu izan dute gizonezko zein emakumezko askok, ohiko izan baita filosofo, pentsalari, literato zein zientzia-gizonak emakumezkoak eta gizonezkoak bereizten dituen gakoaz espekulatzea eta sexu aldagaiak baliatu, ez egonda ere diferentziak markatzeko, jatorrizko gizarte mailako desberdintasunak arrazoitzeko eta, finean, pribilegiozko sistema zuzitzeko. Gizonezko eta emakumezkoen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak sexu aldagaiaren arabera egiten ziren, feminitate eta maskulinitasuna historiari at kokatutako kategoriatzat hartuz. XX. mendearen bigarren zatian ordea, errealitate anitz hasi ziren bereizten, ordurako sexu kategoriaren pean egondakoak; genero kategoria eginkizun horretarako egokia izan da.

Hala ere, genero kategoriak dirau, gaur egun ere, zalantzagarrtasun eta anabasan eta sexu eta genero errealitateak bereizten adostasuna egonda ere, terminologia txit anitza dago, ikerketa eta teorizazioa oztopatzen dituen. Horra hor, beraz, liburu honen zioa eta zergatia.

Lau zatitan agertzen da egituratua: lehenbizikoan sexu/genero errealitatearen inguruan jatorri eta esanahiak aztertzen dira, John Money, Robert Stoller eta feminismo akademikoaren diturikoaren ekarpenen ildotik; bigarren zatian, feminitate eta maskulinitasun psikologikoan ikerketarako kategoria bezala zein eragin izan duen generoak aztertzen da. Bi kategoria hauek elkarren aurka kokatu beharretik gizabanako berean egon daitezkeen alderdi soziokulturalak hartzeri igaro zen eta honek ordura arte sexuen inguruen landutakoarena berraztertzea ekarri zuen.

Liburuaren hirugarren zatiak generoa kontzeptu integratzaile gisa eta metodologia eta osasun metalean suposatutako inplikazioaz dirau, diziplinartekotasun ezaugarria nabarmenduz. Azkenean, laugarren zatiak testuinguru egokia eskaini nahi du errealitate konplexu hau ikertu ahal izateko.

Narcea argitaletxeak duen «Mujeres» izeneko bilduma aberasteko datator honako liburu hau, txukun, arina (125 orrialdekoa) eta, eskemez gain, zati guzti bukaeran laburpen eskematiko batekin ondo horniturik.

K. Burgoa

JASOTAKO LIBURUAK

DOMJAN, M. (2003)

Principios de aprendizaje y conducta. Madrid: Thomson

PÉREZ SERRANO, G. (2003)

Pedagogía Social-Educación Social. Madril: Narcea

SMALE, TUSON, STATHAM (2003)

Problemas sociales y trabajo social. Madril: Morata

ARTIKULUAK ONARTZEKO BALDINTZAK

ARTIKULU BAT (SAIAKERA EDO IKERKETA-MAILAKOA ZEIN IKAS/IRAKAS ESPERIENTZIA MAILAKOA) IDATZI NAHI BADUZU, KONTUAN HAR ITZAZU PUNTU HAUEK:

1. Lanak orijinalak eta beste inon argitaratugabeak izango dira.
2. Artikuluaren zabalera 25 orrialde zenbakitutakoa izango da gehienez, bi puntuko tarteekin. Ez dira onartuko 6 orrialde baino gutxiagoko lanak (bibliografia aparte).
3. Artikulugileek, paperean idatzitako orijinalaz gain diskete informatikoan egindako kopia ere bidali behar dute erredakziora. Ondoko testu-prozesatzaileak onartzen dira:
IBM PC: WordPerfect eta Word
Macintosh: McWrite eta Word
4. Egileak, aparteko orri batean, datu hauek agertuko ditu: izen-deiturak, saila, ikastetxea, helbidea, harremanetarako telefonoa(k) eta helbide elektronikoa.
5. Beraz, artikuluaren hasieran ez dira datu horiek jarriko. Hasieran, izenburuaz gain, 5 edo 6 hitz gakoak jarri beharko dira. Hauetako batek, beti ere, hezkuntza maila adierazten duelarik (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, hezkuntza unibertsitarioa, e.a.). Tesauro gisa, Europako Elkarteak hezkuntzarako ateratakoa erabiliko da. Berau, honako web orrian aurkitu daiteke: <http://www.eurydice.org>. Hitz gako hauek, euskaraz eta gazteleraz eman beharko dira.
6. Artikulu bakoitzari, aparteko orrian, 10-15 lerroko laburpena erantsiko zaio ingelesez, frantsesez edota gazteleraz.
7. Aipamen bibliografikoak, alfabetikoki ordenaturik, testuaren bukaeran, aparteko orri(et)an, era honetara agertuko dira:

a) Liburuatarako:

Egilea. Urtea. Liburuaren izenburua (Kurtsibaz). Argitarapenherria: Argitaletxea.

Adibidez:

Elliot, J. (1990). *La investigación-acción en educación*. Madrid: Morata

b) Artikuluatarako:

Egilea. Urtea. Artikuluaren izenburua (Kakotxen artean). Aldizkariaren izena (Kurtsibaz), bolumena (Kurtsibaz), zenbakia edota hilabetea (Kurtsibaz), orria(k).

Adibidez:

Galdos, S. (1992). «Orientazio departamentu bat antolatzeko metodo praktikoa». *Tantak*, 8, 131-148.

8. Artikuluaren ordena hauxe izango da:
 - Izenburua
 - Hitz gakoak
 - Artikuluaren testua
 - Laburpena (aparteko orrian)
 - Bibliografia (aparteko orri(et)an)
 - Egilearen datuak (aparteko orrian)
9. **TANTAK** aldizkariaren Erredakzio-Batzordeak jasotako lanez honako prozesua jarraituko du:
 1. Aztertu ea formatoari buruzko arauak betetzen ote diren. Ezezkoa balitz, berriz ere egileari bueltatuko zaio artikulua. Baiezkoa bada, orduan.
 2. Lan bakoitza Batzorde Zientifikoko edo TANTAKeko Erredakzio-Batzordeak erabakitako bi epaileei emango zaie lana aztertzeko (azterketa itsua izango da egilearen izenik ez baitute ezagutuko). Bien iritzia argitaratzearen aldekoa bada, artikulua argitaratuko da eta biena ezezkoa esanez gero, orduan.
 3. Hirugarren epaile bati emango litzaioke eta bere iritzia izango da erabakigarria.
 4. Artikuluak argitaratuko diren ala ez egileei jakinaraziko zaie.
10. Artikulua argitaratzen denean, noiz jaso zen eta zein egunetan argitaratzea erabaki zen azalduko da artikuluaren bukaeran.
11. Aldizkari-aleak urtarrilaren 15ean eta irailaren 15ean ixten dira.
12. Artikuluak helbide honetara bidali behar dira:

TANTAK
GIPUZKOAKO IRAKASLE ESKOLA
Oñati Plaza, 3
20018 DONOSTIA
Tfnoa: 943-017057
Faxa: 943-018457
e-mail: spprsat@sp.ehu.es